# Aldaketa bizkortzeko jardunez

## Gasteizko ur-kontsumoa eta saneamendua

Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.
AMVISA
Vitoria-Gasteizko Udal Urak, SA

2001az geroztik, **biztanleko ur-kontsumoa %19,5 murriztu da hirian:**

| 2001 | 2022 |
|---|---|
| **129,6** litro pertsona egunero | **104,3** litro pertsona eguneroz |

**Nola erabiltzen dugu ura?** Batzuetan, estolderia-sarean amaitu behar ez liratekeen produktuak edo materialak isurtzen ditugu. '**Kutsadura lausoa**' ere esaten zaio honi:


**Garbiketa-produktu gehiegi**


**Higiene pertsonaleko produktu gehiegi**


**Paper-zapi hezeak**


**Sendagaien hondarrak**

2022an, "Kutsadura lauso" horrek

# 174 tona etxeko hondakin

**sortu zituen: garbiketa-eta higiene-produktuak, konpresak, bilgarriak, preserbatiboak, trapuak... eta paper-zapiak**

Hondakin horiek ez dira ikusten, baina estolderia-sarean sartu behar ez liratekeen zazpi bidaiari-bagoiren baliokideak dira



Gasteizko sareak

# 1.002 km

ditu estolderian eta kolektoreetan

Gasteiz eta Paris arteko distantzia!

## KRISPIÑAKO UR ARAZTEGIA

AMVISAren saneamendu sareak, hondakin urak jaso eta Krispiña araztegira bideratzen ditu

**75-80%**
etxeetatik datozen urak



**20-25%**
etxeetatik kanpo datozen urak

Krispiñako Ur Araztegia instalaziotara iristen den uraren karga kutsatzailea arazteko gai da. Hala ere, **gure eguneroko ohiturekin sortzen dugun kutsadura emergente kopurua murrizten saiatzea hobe da**



2022an, Krispiña Ur Araztegiak **33.097.768** m³ jaso zituen



**25.513.547** m³ ur eraztu eta natura-ingurunera isuri ziren

\+



**3.654.284** m³ ur berrerabili ziren:

- loratagiak ureztatzeko
- erreaktiboen dosifikazioak prestatzeko
- bideak urez garbitzeko

## Nola izan aldaketa positiboaren parte?

Gure eguneroko ohiturek ura arazteko eta berrebiltzeko prozesuak erraztu ditzakete

Gainera, etorkizuneko Hondakin Uren Zuzentaraua murriztaileagoa izango da ur araztegietan aplikatu beharreko tratamenduekin eta irteerako ur kalitate mailetan; beraz, eguneroko keinu txiki batek arazketa hobetzen lagun dezake



Komunetik 3P-ak baino ez (pipia, popoa eta papera). Farmakokutsadura saihesteko sendagai-hondarrak utzi behar ditugu biltzeko puntuetan (SIGRE)



Paper-zapi hezeak edo garbitzeko paper-zapiak EZ dira komunetik botatzen. Utzi paperontzi batean edo gainerakoen frakzioaren ontzian



Garbitzeko, ahalik eta produktu gutxien erabili, eta kasu egin erabiltzeko eta dosifikatzeko jarraibideei. Gogoratu garbiketa erregularra egitea, produktu indartsuagoak eta oldarkorragoak erabili behar ez izateko



Konposizioan substantzia gutxien dituzten higiene- eta garbiketa- produktuak lehenetsi. Garrantzitsua da garbiketa produktuak ez nahastea. Beste formula batzuk ere erabil ditzakezu: adibidez, ozpina edo limoia, ahal denean



Substantzia begetalak, biodegradarriak eta mikroplastikorik gabeko produktuak erabili

## Zer egiten du AMVISAk herritarren kontzientziazioa bultzatzeko?



más allá del baño

Eguneroko keinuen gaineko kontzientzia sustatu nahi dugu ikastetxeetatik eta maila guztietan. Pertsona guztiak higiene pertsonaleko eta garbiketako produktuen erabilerak duen eraginaz jabetzea nahi dugu

| **1.156** | **445** | **1.318** | **1.519** | **31** |
|---|---|---|---|---|
| prestakuntza-ordu eman dira | ikasle parte-hartzaile | lagunek bisitatu zuten Krispiña 2022an | kartel entregatu dira | ikastetxe hartzaile |

Informazio gehiago AMVISAren webgunean

Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.
AMVISA
Vitoria-Gasteizko Udal Urak, SA